

Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IKASTURTEA	2019-2020	IRAKASLEA	Elixabete Aranburu Lertxundi
MAILA	3. DBH	ARLOA	Musika


HELBURUAK

1. Musikako hiztegi eta terminologia egokiak ikastea norberaren ideiak zehaztasunez adierazi ahal izateko eta musika prozesuak ahoz nahiz idatziz azaltzeko. Ikasleak ikaskideen ekarpenak entzun eta errespetatu behar ditu eta gai izan behar du iritzi pertsonalak osatzeko.
2. Ideiak eta sentimenduak azaltzeko ahotsa, gorputza, objektuak, instrumentuak eta baliabide teknologikoak erabiltzea, norberaren komunikazio aukerak aberastuz eta bestelako adierazpen moduak errespetatuz.
3. Bakarka zein taldean musika interpretatzea (ahotsaren bidez, musika tresnen bidez,) eta sortzea ahalbidetzen duten gaitasunak eta teknikak garatu eta aplikatzea.
4. Askotariko musika obrak entzutea, estilo, genero, joera eta kultura desberdinetakoak, haien balioa aintzat hartzea jakintzaren, kulturen arteko aberastasunaren eta pertsonen gozamenaren iturri diren aldetik, eta norberaren gogoko musika motak gehitu eta dibertsifikatzeko interesa izatea.
5. Musika obra desberdinen ezaugarriei antzematea, arte sorkuntzaren eta kultur ondarearen adibidetzat hartuta; haien asmoak eta funtzioak hautematea eta terminologia egokia erabiltzea haiek behar bezala deskribatzeko eta kritikoki baloratzeko.
6. Informazio iturri desberdinak- Internet, testuak, partiturak eta bestelako baliabide grafikoak musika ezagutu eta horretaz gozatzeko erabiltzea, modu autonomo eta kritikoa.
7. Ulertu eta aintzat hartzea musika hizkuntzaren eta beste hizkuntza eta jakintza-eremu batzuen arteko loturak, baita artelanen ikus-entzunezko obren ekoizpenean eta komunikabideetan musikak duen eginkizuna eta esanahia ere.
8. Irizpide pertsonalak osatzea, gizartean musikak dituen erabileren azterketa kritikoa eginez, musikaren jatorria gorabehera; irizpide horiek eguneroko egoerei aplikatzea

San Pedro 44 31797 LARRAINTZAR

Tel: 948 309206 Fax: 948 309353

cplarra@educacion.navarra.es / iesolarr@educacion.navarra.es



Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

autonomiaz eta ekimenez eta musikak pertsonen eta komunitatearen bizitzari egiten ahal dion ekarpena baloratzea.

9. Isiltasuna eta soinua baloratzea, ingurumenaren eta musikaren zati diren aldetik, eta kutsadura akustikoak eta beraren ondorioek sortutako arazoez ohartzea.

10. Eskolako liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea arloko gaiei buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.

OINARRIZKO GAITASUNAK

X	INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA ETA GAITASUN DIGITALA	X	MUNDU FISIKOA EZAGUTU ETA HAREKIN ELKARRERAGITEKO GAITASUNA
	MATEMATIKARAKO GAITASUNA	X	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA
X	GAITASUN SOZIALA ETA HIRITARTASUNA	X	AUTONOMIA ETA EKIMEN PERTSONALA
X	IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA	X	ARTE ETA KULTUR GAITASUNA

EDUKIAK / GAIAK

1.Ebaluazioa	2.Ebaluazioa	3.Ebaluazioa
<ul style="list-style-type: none">- Antzinako eta erdi aroko musika- Berpizkundea- Barrokoa	<ul style="list-style-type: none">- Klasizismoa eta erromantizismoa- Orkestra eta instrumentuak	<ul style="list-style-type: none">- Gaur egungo musika- Euskal musika


*Informazio hau behin-behinekoa da. Ikasturtea aurrera joan ahala aldaketak izan daitezke.

EBALUAZIOA

San Pedro 44 31797 LARRAINTZAR

Tel: 948 309206 Fax: 948 309353

cparrari@educacion.navarra.es / iesolarr@educacion.navarra.es



Larraintzarko
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

IRIZPIDEAK:	PROZEDURAK
<p>1. Aldez aurretik ikasgelan entzun diren musika obrak berriz entzutean zein diren antzeman eta garaia edo kultura zehaztea.</p> <p>2. Hizkuntza desberdinak (grafikoa eta hitzezkoa) erabiliz, musikaren antolaketaren eta egituraren zenbait elementu eta forma (erritmoa, melodia, ehundura, tinbrea, errepikapena, imitazioa, bariazioa) identifikatu eta deskribatzea.</p> <p>3. Entzundako musikari buruzko iritziak gainerakoei azaltzea.</p> <p>4. Ahotserako edo musika tresnetarako pieza baten interpretazioan parte hartzea taldean.</p> <p>5. Zenbait baliabide teknologiko eskuragarri autonomiaz erabiltzea.</p> <p>6. Abesti edo instrumentu-pieza baterako moldaketa bat egitea.</p> <p>7. Ikasgelako musika jardueretan hainbat motatako partiturak irakurtzea, musika interpretatu eta entzuteko euskarri gisa.</p> <p>8. Eguneroko bizitzan, soinua modu ezegokian zein egoeratan erabiltzen den identifikatzea, arazoaren kausak aztertzea eta konponbideak proposatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none">- Froga objektiboak beharraren arabera egingo dira (normalean, gai bakoitzaren amaieran).- Froga hauek egiteaz gain bidalitako lanek frogak duten balio berdina izanen dute.- Kalifikazioak jarrera eta froga objektiboen arabera jarriko dira Jarreraren barruan, materialaren erabilera egokia, parte-hartzea eta interesa sartuko dira.- Ezinbestekoa da arloa gainditzeko jarrera egokia izatea. Horrela, jarrera ezegokiak ikasgaiaren ez gainditzea automatikoki eragingo du.- Bukaerako kalifikazioa batz bestekoa izango da, beti kontuan hartuta azken ebaluazioko emaitzak pisu handiagoa duela.- Edozein ikaslek azterketetan edo lanetan kopiatzen harrapatuko bagenu, edozein dela erabilitako bitarte teknikoak, galduko luke froga zuzentzeko eskubidea


KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

- Hiruhileko bakoitza gainditu beharko da gaia gainditzeko. Hiruhileko bakoitzeko berreskurapena egingo da.

San Pedro 44 31797 LARRAINTZAR

Tel: 948 309206 Fax: 948 309353

cplarra@educacion.navarra.es / iesolarr@educacion.navarra.es



Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

- Kurtso bukaerako azken nota kalkulatzeko, gaitutako hiru hiruhilekoen batz bestekoa egingen da. Ebaluaketaren bat ez bada gaitutako ohiko deialdian ebaluaketa hori berreskuratuko da. Ebaluaketak ez badira gaitutako ohiko deialdian, ekainean ez ohizko azterketa orokorra egingen da.
- Ezinbesteko baldintzak daude: lanen aurkezpena eskatutako datetan, koaderno zein materialaren ekarria. **Nota lanen, jarreraren zein azterketen batz bestekoa** izanen da.
- Notaren **batz bestekoa** horrela egingo da:
 - Frogak eta lanak: %80
 - Klaseko jarrera: %20

Gaitutako derrigorrezkoa da atal bakoitzean 5a ateratzea. Jarrera ez bada gaitutako, irakasleak ezarriko du ebaluaketa gaitutako baldintza.

Ebaluaketa **automatikoki suspendituta** izanen da ondorengo kasuetan:


- Jarrera ezegokia izanda, hau da, elkarbizitza araudiaren apurketa, materialaren erabilera ezegokia, parte-hartze desorekatua edo interes falta.
- Edozein ikasle azterketetan edo lanetan kopiatzen harrapatuko bagenu, edozein dela erabilitako bitarte teknikoak, froga zuzentzeko eskubidea galduko luke.

GUTXIENGOAK

1. Klasean eguneroko lana betetzeko behar diren materialak kurtsoan zehar ekarri behar dira eta ongi zaindu behar dira.
2. Arlo honetako ikasketarako beharrezkoak diren hizkuntza trebetasunak lortzea.
3. Idatzizko iturrietako informazioa ulertzea eskemen, grafikoan, mapa kontzeptualen, laburpenen eta abarren bidez.

San Pedro 44 31797 LARRAINTZAR
Tel: 948 309206 Fax: 948 309353

cplarra@educacion.navarra.es / iesolarr@educacion.navarra.es



Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

4. Entzuten den musika ulertzeko, besteak beste honako baliabideak erabiltzea: instrumentuak, teknologiak, testuak, partiturak eta bestelako adierazpen grafikoak.
5. Musika lanaren eraketan esku hartzen duten elementuak (melodia, erritmoa, tinbrea, tempo eta dinamika) eta musika lanak entzutean eta aztertzean horiek identifikatzea.
6. Ahots eta instrumentu motak eta ahots eta instrumentu taldeak sailkatzea eta bereiztea.
7. Musika entzutea eta honen azterketa oinarritzakoa eta kritika egitea.
8. Ezaugarri desberdinetako musikak ezagutzeko eta norberaren gustuko musika motak gehitu eta dibertsifikatzeko interesa.
9. Klasean jarrera egokia eta dinamikoa izatea.
10. Musika entzunaldietan oinarritzakoa ideiak ezagutzeko gai izatea.
11. Informazio iturrien (partiturak eta ikus-entzunezkoak) erabilpen zuzena. Hauetan agertzen diren kodeak ezagutu eta erabili.
12. Bakarka eta taldekako interpretazioekiko sentsibilitatea eta jarrera kritikoa.
13. Ebaluaketa guztietan gaika egindako azterketak zein lanak gaituak izatea.
14. Azken ebaluaketa gaituta izatea, ekainaren kasuan. Aurreko bi ebaluaketak suspendituak baldin baditu ikasleak ekaineko kalifikazioa 6 baino altuagoa izatea.

BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna


BALIABIDEAK

- **Azalpen teoriko eta apunteak.** Apunteak ikasleari eta programazioaren atal ezberdinei egokituak egongo dira. Apunte hauek, ikasleek osatu eta alderatu beharko dituzte beraien esperientziei esker.

San Pedro 44 31797 LARRAINTZAR

Tel: 948 309206 Fax: 948 309353

cplarra@educacion.navarra.es / iesolarr@educacion.navarra.es



Larraintzako
IKASTETXEA

URTEKO PROGRAMAZIOA

- *Ordenagailua eta ediziorako softwarea.*
- *Bideo, D.V.D eta pelikulak.*

METODOLOGIA

Metodologia, nahiko dinamikoa izango da. Talde lana oso garrantzitsua izango da kurtso honetan kontzeptuak eta teoria lantzean, taldekatze ezberdinekin jokatu dugu. Egoera batzuetan banakako lana azpimarratuko da eta besteetan taldekakoari emango zaio garrantzia.

Hirugarren maila honetan, gai izan beharko dira (bakarka zein taldeka) haien kabuz informazio hori sakontzeko.

Irakaslearekin harremanetan jartzeko korreo hau erabil daiteke
earanbuler@educacion.navarra.es

Larraintzarren 2019ko irailaren 5 a